

## **ZUMAIAKO UDALA**

## **GIPUZKOAKO PROBINTZIA**

### **2006KO AZAROAREN HAMARREAN UDAL PLENOAK EGINDAKO EZOHIKO BATZARRALDIKO AKTA.**

Zumaiako hirian, bi mila eta seiko azaroaren hamarrean, arratsaldeko zortziretan, Udaletxe honetako Biltzar Aretoan (Foronda Kultur Etxean), Udal Plenoa eratu da, ezohiko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez ezarritako eguneko aztergaiari jarraituz. Garaiz eta behar bezala deituta, korporazioko kide hauek bertaratu dira:

#### **LEHENDAKARITZA.-**

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA andrea.

#### **ZINEGOTZIAK.-**

Asier ESNAL ALBIZU jauna.  
Manuel ZUBIA ARTABE jauna.  
Lide AMILIBIA BERGARETXE andrea.  
Mikel OLAIZOLA ELOSUA jauna.  
Andoni ETXANIZ OSA jauna.  
Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA jauna.  
Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA jauna.  
Abel YEREGUI SASIAIN jauna.  
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ jauna.  
Paloma HEREDERO NEGREDO andrea.  
Cristina FORCADA UNANUE andrea.

#### **IDAZKARIA.-**

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

### **1.- ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN 1.GO SEKTOREA (PUNTANUETA II)-KO PLAN PARTZIALAREN TEXTU BATERATUA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.**

Alkateak bilera eratutzat eman ondoren zera dio, aurreko Plenoan EAko zinegotziek eskatuta ez zela gaia eztabaidatu, besteak beste Hirigintza Batzordeko irizpenaren berri izan ez zutelako.

Deialdiarekin batera zinegotzi guztieri bidali zaie Hirigintza Batzordeko irizpena. Bertan jasotzen da Plan Partziala Foru Diputatuak behin betiko izaeraz onartua duela jadanik. Baina erabaki hori eraginkor gerta dadin plana argitaratu eta indarrean sartu baino lehen Textu Bateratu bat onartzera gaude baldintzatuta. Textu Bateratu

horretan zenbait neurri osagarri jaso behar dira eta akordioaren azalpenetan adierazitako hutsuneak konpondu.

Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate eta ingurumen Partaidetzako Zuzendaritzak luzatutako txostena aipatzen du. Puntanuetako Plan Partzialaren esparruari Hezeguneetako PTS-ak zatitxo batean ukitzen diola eta neurri zuzentzaile batzuk eskatzen ditu. Hala nola, etxebizitzaren eraikuntzak daukaten forma egokitzea ez daitezen hezegunean sartu, aurrikusten den bide berria ahalik eta tangentialena izan dadila MA2-1 eremutik, gunea lehengoratu behar dela eta Urola ibaiaren gaineko zubia begi bakarrekoa izango dela.

Diputatuaren ordenean Textu bateratuan barneratu behar diren aldaketak zeintzuk diren irakurtzen ditu eta adierazten du Puntanuetako eremuak Narrondo errekarerekin muga egiten duenez eta erreka hau Europako bisoiarentzat interes berezia duen eremutzat jotzen delarik eraikitze fasean Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako departamentuari baimena eskatu behar zaio.

## **HIRIGINTZA BATZORDEKO TXOSTENA ZUMAIKO PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO “PUNTANUETA II” 1. ALORREKO PLAN PARTZIALAREN TESTU BATERATUA ONARTZEARI BURUZ.**

### **AURREKARIAK**

1.- Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamentuko Foru Diputatuak, 2006ko abuztuaren 9an emandako Foru aginduaren bidez, erabaki zuen Zumaia Arau Subsidiarioetako “Puntanuetan II” 1. Alorreko Plan Partzialaren espedientea, Zumaia Lantzen S.A.k sustatutakoa, behin betiko onartzea, baldin eta neurri osagarriak hartzen badira eta akordioaren azalpenetan adierazitako hutsuneak konpontzen badira plana argitaratu eta indarrean sartu baino lehen.

Ohartarazten da, gainera, 2004ko maiatzaren 12ko Foru Aginduan ezarritakoari jarraituz, alorreko mugako zati bat den Narrondo erreka, bisoi euparrarentzat interes berezia duen eremutzat jotzen dela; horregatik, onartutako eta aipatutako foru aginduaren eranskin modura doan kudeaketa planean aipatutako espeziea babesteko aurreikusitako neurriak aplikatzearen kalterik gabe, Foru Aldundiko Landa ingurunearen garapenerako Departamentuari aipatutako arautegian aurreikusitako baimena eskatu beharko zaio urbanizatze edota eraikitze fasean.

2.- Udalari bi hilabeteko epea ematen zaio agiria egokitu, Udalbatzan ontzat eman eta ondoren Foru Aldundiari bidaltzeko.

3.- Foru Aginduaren azalpenetan ageri diren baldintzak honakoak dira:

- Ordenantzetako 16. artikuluko erabilpen zerrenda ez dator bat “Zonakapen xehatua” 3.7 planoan adierazitakoarekin. Plano horretan, gainera, bidegorria eta lur gaineko erabilera publikoko zortasuna (ataripeak) duen lurzati pribatu eraikigarria zehaztu eta grafiatu gabe dago.

- Ordenantzetako 18. artikulua aipatzen dituen lurzatiak “Partzelazioa” 3.5 planoan identifikatu behar dira.

- Aurreikusitako lau eraikin motetako bakoitzerako erregulazioa jasotzen duten 31, 32, 33 eta 34. artikuluetan (1. mota: 1A eta 1B blokeak; 2. mota: 2A eta 2B blokeak; 3. mota: 3 blokea eta 4. mota: 4. blokea) beharrezkoa da bakoitzaren aprobetxamendua zehaztea, sestra azpiko eta gainekoaren artean bereiziz.

- Planaren arautegi-zatira eramango dira memoriaren 4. eranskinean azaltzen diren kudeaketa baldintzak. Gainera, beharrezkoa da bidezkoak diren zuzenketak egitea jardun unitatearen mugaketari dagokionez desjabetze erakundeari (1. atala eta 3.4 planoak), erakunde sustatzaileak ez daukalako desjabetze ahalmenik (2. atala), Zumaia Udalaren aldeko lagapenei (3. atala) eta urbanizatzeko kostuei (aipatutako eranskinaren 5. atala eta Azterketa ekonomiko-finantzarioko 4. atala).

4.- Planaren erredaktoreak laukoizki aurkeztutako agirian jasota daude aurrez aipatutako egokitzapenak eta Foru Aginduaren eranskinean adierazitakoak.

Ondorioz, 2006ko urriaren 23an Hirigintza Batzordeak erabaki du, EAJren eta PSOEren aldeko botoekin eta IZUSTARRI eta EB-BERDEAKen abstentzioarekin, honako txosten hau onartzea abenduaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartutako Tokiko Korporazioen Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Araudiko 135.3 artikuluari jarraituta, eta bidezkoa bada Korporazioaren Udalbatzaren iritzia biltzea.

Hirigintza Batzordeko irizpena bozkatu aurretik EAko bozemaileak zera galdetzen du txostenean jasotzen den esaldi honek: "erakunde sustatzaileak ez daukalako desjabetze ahalmenik (2. atala)" zer esan nahi duen.

Idazkariak erantzuten dio desjabetzeko ahalmena lurralde administrazioak dutela soilik, hau da: estatuko administrazioak Autonomi elkarteek eta Udal Administrazioak. Zumaia Lantzen S.A-k ez dauka desjabetzeko eskumenik, Zumaia Lantzen desjabetzaren onuradun izan daiteke. Zuzenketa zentzu horretan doa.

Bozketa eginik,

Aldeko botuak: 10 ( 5 EAJ, 2 EA, 2 PSOE eta 1 EB-BERDEAK )

Aurkako botuak : 0

Abstentzioak: 2 IZUSTARRI.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.3 i) artikulua legez hala ezarrita, Korporazioko kideen gehiengo osoaren quorumarekin

**ERABAKI DA:**

1.- Zumaia Planeamenduko Arau Subsidiarioetako "Puntanueta II" 1. Alorreko Plan Partzialaren Testu Bateratua, Zumaia Lantzen S.A.k sutatutakoa eta Sabai Arkitektoak S.L.k idatzitakoa, onartzea.

2.- Dokumentazioa Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, argitaratu eta plana indarrean sar dadin.

Galde eskaerarik ez dagoenez, beste gairik izan gabe, arratsaldeko zortziak eta hamabost minutu direnean, Alkate andreak batzarraldia amaitutzat eman du, eta nik, idazkaria naizen aldetik, fede eman dut.

ALKATEA

IDAZKARIA